

BARRIONUEVOREN AURKAKO KEREILA

Jose Barrionuevo Espainiako Barne ministro ohia izan zen, eta Ipar Euskal Herrian zeuden errefuxiatuen kontra erabilitako "matxinoen aurkako estrategiaren" ondorioz hainbat biktimek bere aurkako kereila kriminal bat tarteratu dute, GEBehatokiarekin elkarlanean. Barrionuevo, berak aitortua, Zona Especial Norte (ZEN) planaren barruan egindako ekintzen eta GALen jardunaren erantzule nagusietako bat da. *El País* egunkarian Segundo Mareyren bahiketan eta Joxemari Larretxea bahitzeko saiakeran egindako rolaz hitz egin zuen.

Kereilan gizateriaren kontrako delituak egitea leporatu zio. ZEN planaren baitan, 1980 hamarkadan, bahiketak, desagertze behartuak, torturak, legez kanpoko entregak, deportazioak egin ziren. Gainera, estrategia horrek GAL sortu zen ere.

Esan bezala, GEBehatokiarekin batera, kereila hau biktimek eta beren senideek aurkeztu dute. Honako hauek dira:

Amaia Egileor Aldatz, Gorka Xabier Egileor Aldatz, Maria Asuncion Aldatz Moran, Begoña Galdeano Prieto, Maria Nieves Brouard Aldamiz, Lourdes Oñaederra Bergara, Maria Arantzazu Oñaederra Bergara, Izaskun Ugarte Begoña, Jesus Amantes Arnaiz, Maria Asunción Lasa Arostegi, Joseba Lasa Jauregi, Alberto Aldana Barrena, Maria Izaskun Rekalde Goikoetxea (hil egin da), Bizenta Mujika Mendiondo, Maider Garcia Martin, Pedro Maria Aizpuru Arbeilaiz, David Isart Badiola, Carlos Maria Delas Aizcorbe eta Francisco-Javier Izura Sanz.